

Liburugintzaren arloko laguntzak, bidegurutzean

Euskal liburugintza sustatzeko eredu berriak aztertzen ari da Jaurlaritzak. Gaur egun, liburu bakoitzaren 300 ale erosiz ematen duena da laguntza nagusia, baina industria arloko laguntzak eskatzen dituzte arloko profesionalak.

Juan Luis Zabala

“Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du”, “Edizio honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du”, “Eusko Jaurlaritzak liburu hau lagundu du liburutegietarako zenbait ale erosiz”... Era horretako ohar bat ageri da azken 20 urteetan argitaratu diren euskarazko liburu gehienen atariko orrialdeetan. Oharrak ez du zehazten, ordea, zenbatekoa edo nolakoa den Jaurlaritzako Kultura Sailak liburu bakoitzari emandako laguntza: euskarazko liburuak sustatzeko, euskarazko liburu gehienen 300 ale erosten dizkie Jaurlaritzak argitaletxeei, dendetan duten salneurriaren erdia ordainduta.

Alderdi kritikagarri batzuk salatu zaizkio, eta aldaketa txiki batzuk ere izan ditu, baina azkeneko 20 urteetan erosketa bidezko laguntza da Jaurlaritzak euskarazko liburugintzari emandako laguntza nagusia, ardatza. 2006an 603.000 euro bideratu zituen Jaurlaritzak laguntza molde horretara, 2007an 580.000 eta 2008an 614.000.

Sektoreko eragile eta profesionalak aspaldidanik ari dira beste era bateko laguntzak eskatzen, liburuei emandako banan banako bultzadatik haratago liburugintza industria gisa tratatuko dutenak eta azpiegiturak sendotzeko baliagarriak izango direnak. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko ordezkariak EEE Euskal Editoreen Elkarteko eta EEG Euskadiko Editoreen Gremioko ordezkariekin bildu dira, eta biltzen jarraitzeko asmoa dute, laguntza politika berri bat diseinatzeko. Diagnostikoaren puntu batzuetan ados daude, baina oraindik ez dituzte hitzartu etorkizuneko laguntza moduak. Ezta egun dagoen erosketa bidezko laguntzari eutsiko zaion edo ez ere.

“LAGUNTZA” EDO “EROSKETA”?

Euskal literatura kaleratzen duten argitaletxe guztientzat laguntza garrantzitsua da erosketen bidez egindakoa, laguntza horrek ematen duen ziurtasuna gabe ezin izango bailituzkete salmenta zail edo murrizteko hainbat liburu argitaratu.

Editore batzuek, ordea, Jaurlaritzak bide horretatik egiten duenari ez diote “diru laguntza” irizten, “erosketa” baizik. “Eusko Jaurlaritzak liburutegietarako mahaiak erosten dituenean, esaten da altzari industria subentzionatzen ari dela?”, dio, adibidez, Pello Elzaburu Pamiela argitaletxeko editoreak. “Alde horretatik begiratuta, ez da subentzioa, liburutegiak hornitzeko egindako erosketa baizik. Badu, hala ere, ezaugarri berezi bat: erosketa unibertetsala

dela; baldintza minimo batzuk betetzen dituzten euskarazko liburu guztiak erosten dira”.

“Liburu kopuru jakin baten truke jasotzen dugu ordainean dirua, alegia, dirua produktuaren truke”, dio, Elzabururekin ados, Olatz Osa Elkar argitaletxeko editoreak. “Diru laguntza litzateke, baldin eta liburuaren defizitariotasuna ekiditeko diru kopuru bat emango balute, trukean liburu kantitate bat ematen ibili beharrik izan gabe”.

“Inoiz diru laguntza izateko bokazioarekin sortu baldin bazen, diru laguntza zaharkitua da”, Mikel Soto Txalaparta argitaletxeko editorearen iritziz.

“Normala denik ezin da esan, ez baitut uste beste inongo sektoretan egiten denik produktuen erosketarik erdi prezioan. Erosketa da, eta erosketa pirata samarra”.

Bestelakoa da Jorge Gimenez Bech EEE Euskal Editoreen Elkarteko lehendakariaren ikuspuntua: “Diru laguntza da, halaxe konbokatuta dagoelako, beste herrialde batzuetan egiten diren erosketa publikoak bezala. Badu, hala ere, laguntzaren formatik urruntzen duen ezaugarri bat: zerbait entregatzen dela. Laguntzaren helburua bikoitza delako gertatzen da hori: batetik, euskarazko liburugintzaren sektoreari babesa ematea; bestetik, liburutegien sare publikoa liburuz hornitzea”.

Baldintza minimo orokor batzuk betetzen dituzten liburu guztiek jaso dezakete Jaurilaritzaren erosketa bidezko laguntza: 30 euroko baino gutxiagoko salneurria; 1.000 aletik gorako argitaraldia (750ekoa aski poesia, saiakera eta antzerki liburuetan); bestelako diru laguntzarik ez jaso izana...

ARGITALPEN OPORTUNISTEN ARRISKUAZ.

Horrenbestez, laguntza bera jasotzen dute, modu indiskriminatuan, oso eite eta maila ezberdineko liburuek. Horrek ere eragin du kezkarik eta kritikarik. Denek aitortzen dute, ordea, konponbidea ez dela erraza. “Argi dago zenbait liburu oportunismoz argitaratzen direla, subentzioa jasotzeko”, Elzabururen iritziz. “Baina nork hartuko du, hartu behar baldin bada, bereizketa egiteko ardura? Hori oso delikatua da”.

“Batzuen erabilera txarretik ezin da ondorioztatu sistema berez txarra dela”, Gimenez Bechen ustez. “Kontua irizpideak ondo taxututa egotea da. Hortik aurrera, egiten diren erabilera txarrak zaindu beharko dira”.

Horregatik, nahiz eta batzuek “diru laguntza” kalifikazioari egoki ez iritzi, eta nahiz eta alderdi kezkagarri batzuk atzeman, arloko profesionalek ez dute erosketa bidezko laguntza sistema kentzeko eskatzen.

“Liburu asko eta asko erosketa honi esker argitaratzen dira, eta uste dut behar-beharrezkoa dela”, dio, jarrera horren adibide argi, Luis Haranburu Altuna Hiria argitaletxeko editoreak. “Diru hori eta gehiago beharko litzateke. Euskal liburuak baditu hainbat gabezia eta defizit historiko, eta horiek ez dira osatzen denetarik erosita ere. Jaurilaritzak liburuak laguntzeko gastatzen duena hutsaren hurrengoa da bere aurrekontu osoaren kontestuaren barruan”.

INDUSTRIA SENDOTZEKO LAGUNTZAK.

“Gauza bat da liburutegiak hornitzeko xedez euskarazko produktuen erosketa bat egitea, eta beste bat euskarazko liburugintza laguntzea”, zehaztu du Osak. “Egun, bi helburu horiei liburu erosketaren bidez erantzun nahi zaie, baina ez dira helburu bateragarriak. Euskarazko liburugintzaren industria laguntzeko, produktu zehatzak ardatz hartu ordez, argitaletxe bakoitzak aurkeztu beharko lukeen argitalpen plangintza hartu beharko litzateke kontuan, eta laguntzak horren arabera banatu”.

Laguntzen zenbatekoa erabakitzeko, “liburuen edo produktuen edukiaren balioa, originaltasuna, berrikuntza, egin beharreko inbertsio ekonomikoa, zabalkundea, eragin soziala eta abar” neurtu edo baloratu beharko lirateke, Osaren ustez. “Egiturak laguntzen dira modu horretan, ez produktuak; eta egiturak sendotzea da euskarazko liburugintzaren etorkizunaren bermerik onena”.

Laguntzak ikuspegi industrialera lerratzen baldin badira, “diru laguntza mota bat baino gehiago beharko da”, Gimenez Bechen ustez. “Jaurlaritzako Kultura Sailarekin eta EEGrekin batera mailegu publikorako bide bat aztertzen ari gara, gure sektoreari begira, finantza arloko laguntzen sistema bat: mailegurik behar izanez gero zer laguntza eman dezakeen Jaurlaritzak eta abar... Mota horretako laguntzak nola eman erabakitzen denean, kontuan hartu beharko da oso argitaletxe mota desberdinak daudela; batzuen beharrak ildo batetik joango direla eta beste batzuenak beste batzuetatik”.

“Gerora begira, oraingo aurrekontu ahaleginari eutsi egin beharko litzaioke gutxien-gutxienez”, Gimenez Bechen ustez. “Eta hori baino gehiago ere egin beharko litzatekeela uste dut. Irizpideen errebisioaren ondotik ezin da etorri aurrekontu ahaleginaren jaitsiera bat. Liburutegi publikoak hornitzen segitu beharko da, eta horretan Jaurlaritzak badu zer esanik, eta baita editoreok ere. Oraingo sistema berritu egin behar da, eta oraingo sistema honen eginkizun batzuek hortxe segituko dute, eginkizun izaten”.

AZKEN MURRIZKETEN INGURUKO KEZKA

Euskarazko liburuen erosketa bidezko diru laguntzaren araudian azkenaldian egin diren murrizketekin kezkatuta daude editore batzuk, murrizketak horiek beren argitaletxeetan eragin zuzenik ez izan arren. Lehen ez bezala, orain erosketa bidezko laguntza jasotzeko merkataritza erakunde pribatua izan behar da, eta aurreko urtean gutxienez hiru egileren bost liburu izan argitaratuak. Horrek deialditik kanpo uzten ditu argitalpen puntual asko eta autoedizioak. Diskriminazio handia da burura datozkidan kasu batzuetarako, dio Mikel Sotok. Burura etortzen zait Xabier Amurizak bere kabuz kaleratu duen liburuaren kasua [Dinosauroak horizontean nobela]. Euskal Herriko liburutegiek ez dute Amurizaren liburua merezi? Edo liburuak ez du merezi liburutegietan egotea?.

IÑAKI GOMEZ Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko zuzendaria

“Liburugintza laguntzeko ditugun tresnak berritu behar ditugu, oro har”

J.L.Z.

Sektoreko profesionalekin eta eragileekin biltzen ari da Iñaki Gomez, eta haiengandik jasotakoa hartu nahi du, dioenez, euskarako liburugintza sustatzeko moduen aldaketarako oinarritzat.

Euskarazko liburugintzari ematen zaion diru laguntza gisa aurkezten duzuen, berez, liburu erosketa da funtsean, editore batzuek diotenez. Zer diozue zuek?

Guk ez dugu kontsideratzen erosketa denik. Euskarazko liburuen argitalpengintza sustatzeko aspaldidanik dugun laguntza sistema da agindu hau, eredugarri iritzi eta beste herrialde batzuetatik ekarria. Euskaraz argitaratzen diren liburu guztiei laguntzen die, diskriminaziorik egin gabe, modu automatikoan. Agindu honen helburu nagusia ez da erosketa, ezta liburutegiak euskal liburuz hornitzea ere, euskarazko liburugintzaren sustapena baizik, Euskadiko liburugintza industriak edo sistemak tresna bat izatea merkatuan egon ahal izateko.

Editoreak kritikoak dira aginduaren alderdi batzuekin.

Agindu hau zaharra da, eta denbora ez da alferrik pasatzen. Eguneratze bat behar du. Baina eguneratzea behar duen bakarra ez da agindu hori. Liburugintza laguntzeko ditugun tresnak berritu behar ditugu, oro har. Sektorearen beharrei erantzuteko, tresna bat baino gehiago behar da. Orain arte agindu hau baino ez dugu izan, eta ez sektorea eta ez Administrazioa ez dira ausartu eskua gehiegi sartzen, eguneratze txiki batzuetatik aparte.

Orain ausartuko zarete?

Sektoreko ordezkariekin lanean ari gara. 2006az geroztik izan ditugu bilerak, bai Euskal Editoreen Elkartearekin eta bai Euskadiko Editoreen Gremioarekin, eta baditugu hainbat ideia. Argitaletxeak indartuko baditugu, eta merkatuaren baldintzetara egokitzen den zerbait diseinatuko badugu, argi dago argitaletxeen ideiak behar ditugula, eta kanpoan zer egiten begiratu behar dugula, beste herrialde batzuetan gurean antzeko arazoak baitituzte. Horretan gabiltza gaur egun. Baina ezin dugu zehaztu nolakoak izango diren tresna berriak.

Erosketen bidezko laguntzaren aginduari eutsiko diozue?

Nik uste dut baietz, baina egokituta, eguneratuta, buelta bat emanda. Edozein diru laguntza sistematan, interesgarria da beti laguntza automatiko edo erdi automatiko bat, agindu horrek eskaintzen duena bezalakoa. Argitaletxe batentzat interesgarria izango da beti baldintza jakin eta nahiko arrunt batzuk beteta laguntza bat ziurtatua izatea. Sektoretik jaso dudanari jaramon eginez esaten dut hori. Baina, esan bezala, behin betiko erabakirik ez dugu hartu.

Laguntza horren bidez, kalitate handiko liburu zainduak eta modu zabarrean argitaratutako lan kaskarrek maila bereko laguntza jasotzen dutela kritikatu izan da maiz sektoretik.

Bai, hala da. Baina hor kontua da nola neurtu, zer sistema erabili bereizketak egiteko. Oso kontu konplikatua da horrelako sistema selektibo bat ezartzea. Beste sektore batzuetan badira sistema selektiboak, baina oraingoz liburugintzan ez dugu horrelakorik sortu. Nik uste dut laguntza modalitate batzuetan iritsi beharko dela horretara.

Liburugintza industria gisa laguntzea da aspaldiko aldarria: kreditu malguak, laguntza bereziak...

Hori ere buruan dugu, jakina. Industria aipatzen denean, epe luze samarrean lanean ari diren enpresa txiki eta ertainei buruz ari gara, negozio plan garatu bat dutenak, negozio bolumen bat dutenak... Horiek dituzten beharrak behar industrialetatik gertuago daude. Ikus-entzunezkoen arloan, adibidez, era horretako enpresei ematen zaizkie batez ere laguntzak. Baina badira neurri horretara iristen ez diren argitaletxeak. Antzerkiaren arloan, hiru tipologia bereizten dira, enpresaren curriculumaren eta sendotasunaren arabera. Bide hori hasi beharra daukagu argitalpengintzan ere, nire ustez. Guztien beharrak ezberdinak dira, eta ezin dira denen beharrak bete agindu bakar batekin.

Noizko izango dira aldaketak?

Gure asmoa da aurten gai hau buru-belarri lantzea, eta ea datorren urtean gauza batzuk martxan jartzen ditugun. Baina hau elkarrekin landu behar dugun kontua da. Bestela ez du funtzionatuko.

Elkarrekin diozunean, Euskal Editoreen Elkartearekin eta Euskadiko Gremioen Elkartearekin esan nahi duzu?

Industriarentzako neurrien kontua bi elkarte horiekin batera ari gara aztertzen batik bat. Baina beste arlo batzuk ere badira: sorkuntzarena eta irakurtzeko zaletasunarena, adibidez; horietaz Euskal Idazleen Elkartearekin ari gara hizketan, Euskal Idazleen Elkarte sekulako lana egiten ari baita arlo horietan. Erantzun guztiak ez daude buru berean. Denon artean ere nahiko lan dugu ideia berriak bururatu eta proiektu berriak martxan jartzeko.